

OSTIRALA, 2025eko UZTAILAREN 25a

Xanistebanak **2025**

OIARTZUN

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Oiartzuarrak batzeko egunak

**Abuztuaren 2an hasi, eta 6ra arte izango
dira abian Xanisteban Festak. Herritarrenak
izango dira kaleak, plazak eta txokoak • 21-30**



Goieko

Xanistebanak
gozatu!

GOI MAILAKO EKOLOGIA



943 634 536



www.goieko.com

«Euskaragatik erabaki genuen hemen geratzea»

Abuztuaren 2an egingo du eztanda festak Oiartzunen. Xanistebanak hasiko dira datorren asteko larunbatean, eta abuztuaren 6ra bitartean jai giroa izango da nagusi herrian. Jende andana elkartzen duen sokadantza jaietako lehen egunean izango da, eta aurtengoan herrira bizitzera etorri direnak izango dira protagonista; tartean, David Casanova kataluniarra eta Sandra Mosquera ekuadortarra.

Aurtengo jaietako protagonista izango zarete sokadantzian. Nola sentitzen zarete?

SANDRA MOSQUERA: Pixka bat urduri, egia esan. Mundu guztia niri begira egongo denaren sentsazioa daukat, eta horrek urduritasuna sortzen dit. Baina, hori alde batera utzita, ohore bat da niretzat. Gainera, ohorea eta urduritasuna balantza batean jarrita, ohoreak irabazten du.

DAVID CASANOVA: Ni hasieratik oso pozik nago. Parte hartzeko gogoia daukat, baina urduri ere banago.

Zein da zuen istorioa? Zerk ekarri zaituzte Oiartzunera?

MOSQUERA: Nik 31 urte daramatzat he-

DAVID CASANOVA ETA SANDRA MOSQUERA OMENDUAK

Herrira bizitzera etorritakoek egingo dute xanistebanen hasierako sokadantza. Casanova eta Mosquera dira dantzan ariko direnetako bi; kataluniarra da bata, eta ekuadortarra bestea.

LEIRE PERLINES APALATEGI

men bizitzen. Bizitza proiektu bat sortu nahi genuen Euskal Herrian, baina Donostiatik gertu egon nahi genuen. Oiartzun aurkitu genuen halako batean, eta euskaragatik erabaki genuen hemen geratzea.

Etorri berria nintzela hasi nintzen euskara ikasten, modu horretara bermatuko bainuen kalean euskaraz hitz egin ahal izatea.

CASANOVA: Orain dela hamabi urte iritsi nintzen nire familiarekin, eta nire

lanagatik etorri ginen hona. Donostian egiten dut lan, eta bizitzeko leku baten bila ari ginela pisu bat aurkitu genuen Oiartzunen. Eta, hemen gaude, oso pozik.

Nola jaso zenuten sokadantza egiteko proposamena?

MOSQUERA: «Zer egin dut?», izan zen burura etorri zitzaidan lehen gauza. Nik sentitzen dut ez dudala ezer berezirik egin; sentitzen nuena egin nuen. Esan zidatenean ez nuen sinetsi.

CASANOVA: Ezta nik ere. Hala ere, esan behar dut oso ekintza polita dela herri txiki batean kanpotarrentzat edota kanpotarrekin zerbait antolatzea.

Nola definituko zenukete Oiartzungo bizimodua?

MOSQUERA: Oso herrikoia. Ikastolaren bitartez ezagutu nuen nik Oiartzungo jende pila bat, eta, gaur-gaurkoz, oraindik ere, kalean ikusten ditudanean pertsona horiek agurtu egiten naute. Are, harremana estuagoa baldin bada gelditu ere egiten dira hitz egiteko.

Ez digute kanpotarrak garelako sentiarazten; kontrakoa, herritar sentiarazten gaituzte.

Egia da gure etxean beti saiatu garelako herriarekin lotura izaten. Guretzat hori oso garrantzitsua da, eta Oiartzunek eskaintzen ditu aukerak herriarekin loturak egiteko.

CASANOVA: Nik, horretaz gain, gaineratuko nuke Oiartzunen bizitzeko modua oso lasaia dela; oro har, eroso da. Niretzat opari bat da.

Sentitzen dut herri honetan inplikazio politikoa oso potentzia dela, eta hori niretzat oso garrantzitsua da.



Aiton-Etxe

EGUNEKO ZENTROA

ALDUNDIAREKIN HITZARTUTA
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - www.aitonetxe.com



David Casanova eta Sandra Mosquera, pleno aretoan. Alaine Aranburu

Euskara ikasi duzue biek. Nolakoa izan da hizkuntzaren ikasketa prozesua?

MOSQUERA: Iritsi nintzela 30 urte baino gehiago dira, eta euskaltegietan ikasi nuen. Hasieran Erretereria-Oreteran jasotzen nituen eskolak, eta geroago Oiartzunen ere bai. Euskaltegietan zein barnetegietan ibilia naiz.

CASANOVA: Oraindik ez dut ikasi, ikasten ari bainaiz. Oiartzungo euskaltegia ari naiz euskara ikasten.

Nola bizi dituzue xanistebanak?

MOSQUERA: Nire seme alabek esaten duten bezala, festa onenak dira. Oso giro polit eta herrikoia egoten da. Senarrak eta biok urteak daramatza-

gu helduen bazkarian parte hartzen, seme-alabek Gazte Egunean parte hartzen...

Txikiak zirenean, esaterako, danborradan ateratzen ziren. Ahal den heinean hartu izan dugu parte beti.

CASANOVA: Guri ere pila bat gustatzen zaizkigu ekintzak orokorrean. Gure semeek parte hartzen dute jaietako ekintzetan, eta guk ere bai.

Zein da xanistebanetako zuen ekintza gogokoena?

MOSQUERA: Niri dantza gustatzen zait pila bat.

CASANOVA: Lagunekin eta familiarekin gauzak egitea.

Hortaz, animatuko zenukete jendea xanistebanetara?

MOSQUERA: Bai, bai. Giro polita eta lasaia nahi badute, zalantzarik gabe. Giro segurua da, edo hori da nire irudipena behintzat.

CASANOVA: Bai noski. Gure etxera urtero etortzen dira Kataluniako lagunak, eta aurtan ere ez da gutxiagorako izango. ■



Gazteak saretzeko, Gazte Eguna

LEIRE PERLINES APALATEGI

Festak denentzat dira; denek, bizilagun orok du aukera egitaraua osatzen duen ezen ekitalditara bertaratu eta parte hartzeko, baina gazteek badute euren sentitzen duten egun bat: abuztuaren 5a, hain zuzen. Gazteen Eguna da, zehazki, abuztuko lehen asteartea, eta Biurrieneak egitaraua ondu du data horretarako.

Lehenengo urteko egitarau berbera mantenduko dute aurtengoan. «Nahikoa lan izaten da hau mantentzea», dio Beñat Felipe Biurrieneako

kideak. Gauzak horrela, eguerdiko ordu batean botako dute gazte txupinazoa txosnagunean, eta hor lehertuko da festa. Gazteen bazkaria izango dute gero, baina horretarako Done Eztebe plazara lekualdatuko dira.

Felipek argi du zein den bere xanistebanetako Biurrienearen ekintza gustukoena: hiltzaileen kluba. Haren hitzetan, «herriko gazteak saretzeaz gain, harreman berriak sortzen ditu» jolasak. Gazte Eguna bere horretan gustatzen zaio Biurrieneakoari, nahiz eta aitortu duen lan asko dagoela atzetik. Hala ere, argi utzi du herriaren erantzuna positiboa izaten dela. «Gazte Egunak asebetetzen nau. Gainera,



herriak asko eskertzen du; *eskerrik asko* asko esaten dizkigute lan hori hartzeagatik», nabarmendu du.

Mozorro lehiaketa ere egingo dute gazteek, eta *mahai jolasak* izan da xanistebanetarako aukeratu duten gaia. «Denok elkartzen garen bilera horietako batean oso modu naturalean atera

Gora Xanistebanak!

esnoiz

J A T E T X E A

festetako menua

632 90 32 24

esnoizjatetxea

Zuaznabar 22 - 20180 OIARZTUN - Tel.: 943 49 30 62

Takalo

Egurrezko Labean
Egindako Janariak

Rafael Pikabea 50, Oiartzun
Tel.: 943 49 25 85 / 640 08 08 72

URKIA

www.urkia.com

Ongi pasa
Xanisteban jaiak!



2024ko xanistebanetako Gazte Eguneko gazte bazkaria. Ane Mendizabal

BIYURRIENEAREN EGITARAUA

ABUZTUAK 5, GAZTEEN EGUNA

- **13:00.** Gazte txupinazoa txosnagunean.
- **13:30.** Gazteen bazkaria Done Eztebe plazan.
- **18:00.** 3Indarrok elektrotxaranga gidatutako poteoa tabernaz taberna.
- **Jarraian.** Gazte Eguneko jolasak txosnagunean.

zen gaia, eta grazia egin zigun», kon-tatu du oiartzuarrak. Festen aurretik gaia zein den jakinarazten dute, eta egunean bertan txosnara bertaraten direnen artean gehien gustatu den mo-zorroaren saria banatzen dute.

Gazteek sortu eta gazteei eskaini

Biyurrieneak urte osoko eskaintza egi-teko apustua egiten du; Felipek eman ditu horren xehetasunak. «Eskaintzen dugun horretan gazteek elkarrekin

denbora pasatzeko aukera sortzen da, bestela, *kuadrillismoan* erortzeko joera duen herria baita Oiartzun. Horrekin apurtzeko aukera ematen du Biyurrieneak».

Hortaz, herrian gazteentzat eskaintza egotea bermatzen du Biyurrieneak, betiere gazteen ikuspegitik antolatuta. Alegia, gazteek gazteentzat diren jar-duerak antolatzen dituzte.

Pozik agertu da hitzartzean Felipe, azken boladan Biyurrienean «gazte talde on bat» sartu baita, baina, taldean ez daudenak bertaratzera animatzeko baliatu du aukera. «Jendea gerturatzera eta probetan hartzerantz animatuko nuke, baina Biyurrieneako antolakuntza probatzea edota bilera batera gerturatzera bultzatuko nituzke. Uste dut jendeak sorpresa eramaten duela bere txokoa bertan [Biyurrienean] aurkitzen duelako», ziurtatu du.

Biyurrieneako egitarauaren xehetasun gehiago jakiteko edota azken ordukoen berri izateko, ikus Instagrameko euren profila: [@biyurrienea](https://www.instagram.com/biyurrienea). ■

Ongi pasa jaiak!
Gora xanistebanak!

EROSKI city

BERTAKO SUPERMERKATUA

Olalde kalea 4/5 behea.
943 26 03 45
Altzibar.
OIARTZUN

Jai zoriontsuak!

ITZIAR
edergintza

Santusene kalea, 5. Oiartzun.
Tel.: 943 49 39 81

Gora Xanistebanak!

KBL

OARSO ELEKTRIZITATEA S.L.

943 25 91 79
electricidadoarso@gmail.com
kblelektrizitatea.eus

GOZATU EUSKARAZ ETA GIRO ONEAN HERRIKO FESTAK

GiRiZiA
KULTUR ETA KIROL ELKARTEA

etxera

GORA XANISTEBANAK!
GORA OIARTZUN!

Txirrindularitzak irekiko ditu xanistebanak

Igande honetan Xanisteban Txirrindulari Saria jokatu da. Abuztuaren 2an Donostiako Klasikoa izango denez, proba Iturriozko jaietara aurreratu dute.

MIKEL DEL VAL GARCIA

Igandean (hilaren 27an) xanistebanetan tipikoa bihurtu den txirrindularitza proba lehiatuko da Oiartzungo errepideetan zehar, 10:00etatik aurrera. Xanisteban Txirrindulari Saria Txomin Perurenaren Oroimenezkoa izenpean, udako egutegian mitiko bilakatu den probaren 77. ekitaldia izango da etzikoa.

2023ko ekitaldian antolakuntzan aldaketa nabarmen bat eman zen, Lar-taun Zikloturista Elkartek lekukoa eman baitzion Oarsoaldeko Txirrindu-

laritza Eskolari (OTXE) proba antolatzeko. Orain artean osatutako bidearen balorazioa «oso-oso positiboa» izan dela aitortu du Mikel Astarloza OTXEko kideak, Lartaungo kideen laguntza izan baitute, haiek hasitako bideari jarraipena emanez: «Lartaungoek lagundu egiten digute lasterketa aurrera ateratzen. Haiek nola lan egiten zuten azaldu digute, txosten guztiak ekarri dizkigute eta gure lana haiek egindako lanketa luze horren jarraipena izan da».

Aurtengo lasterketak bi berritasun nabarmen izango ditu. Lehena data aldaketa izan da, Xanisteban Festetan lehiatu beharrean, jaien aurreko asteburuan jokatu baita. Abuztuaren 2an gizonen Donostiako Klasikoa izango da, eta, ohi bezala, Oiartzundik pasako da profesionalen goi mailako txirrindularitza proba hori. Klasikoa dela eta, Jaurilaritzako Trafiko sailburua OTXEko kideekin harremanetan jarri zen, Xanisteban Txirrindularitza Saria egunez aldatzeko.

Bestalde, irteera eta helmuga Done Eztebe plazan kokatu beharrean, Iturriotzera lekualdatu dituztela jakinarazi du Astarlozak. Iturriotz auzoan festak dira asteburu honetan, eta lasterketa Iturriozko jaietako egitarauan txertatu dutela adierazi du OTXEko kideak.

Ibilbidea, gogorra

Ibilbidean aldaketarik sartu ez dutela nabarmendu du Astarlozak. Txirrindulariek 113,7 kilometroko ibilbidea egin beharko dute, eta, ohi bezala, lasterketa gogorra izango da, aldapa askorekin.

elizalde
EUSKALDUNA
ETA PUBLIKOA

HERRI ESKOLA
HH-LH
943 89 93 92
INSTITUTUA
DBH
943 89 92 83

Jai zoriontsuak izan!
WWW.ELIZALDE.EUS
MANUEL LEKUONA 5, OIARTZUN

ZUBILLAGA
aholkularitza - gestoria

- FISKALA • LANA
- KONTABILITATEA
- ZIRKULAZIOA
- ESKRITURAK, HERENTZIAK
- ASEGURAK

Aialde Kalea 3, behea - 20180 Oiartzun - 943 49 18 92 - asesoria@asesoriazubillaga.eus

Oiartzo
etorkizunerako bidelagun

Gora Xanistebanak!
Eta biba zuek, gazteak!

www.oiartzoikastola.eus

sagardotegia
BALEIO
sagardo naturala

Urte osoan zehar sagardo botilen salmenta

943 49 13 40 - 626 69 30 74
OIARTZUN

Orotara, zortzi itzuliz osatutako zirkuitu bat ondu dute antolatzaileek. Lehen lau itzuliak zailtasun gabekoak izango direla aurreratu du Astarlozak, eta herrian barrena arituko da tropela. «Helburua da aurreneko lau itzuli errazetan tropela ez gehiegi txikitzea». Azken lau itzuliak, aldiz, gogorragoak izango dira, Arpideko bidetik bideratuko baitute lasterketa. Aldapa hori sartzearen arrazoia da lasterketa «erabat txikitzea» eta txirrindularientzat «gogorra» izatea. Gain horretan, gainera, mendiko sariaren puntuak banatuko dituzte.

Iturriozko irteeran 20 talde inguru eta 150 txirrindulari baino gehiago izango dira. Oro har, Euskal Herrian lehiatzen diren taldeak izango dira Oiartzunen, eta, horietatik, Euskaltel Euskadi, Kern Pharma eta Caja Rural talde profesionalen bigarren taldeen parte hartzea nabarmendu du Astarlozak. Horiez gain, OTXEko taldea ere irteeran izango da, eta eskualdeko hamar txirrindulari espero dituztela aurreratu du probaren antolatzaileak.

Ibilbidearen gogortasuna kontuan hartuta, igotzaileentzat eta abiadura handia duten txirrindularientzat aproposa dela zehaztu du Astarlozak: «Txirrindulariek igotzen ondo moldatu behar dute, eta *txispa* eta abiadura handia izan behar dute, aldapak ez direlako oso luzeak. Ibilbideak etengabe gora eta behera egiten du, ezker-eskuin, eta irabazteko trebetasun handia ere izan behar da».

Oiartzungoa Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatzen duen Lehendakari Txapelketako lasterketa



2023ko ekitaldian Haimar Etxeberrria irundarra izan zen azkarrena Done Eztebe plazako helmugan.

Olaia Gerendiain

puntuagarria da. Txapelketa horren barruan hainbat proba sartu ditu federazioak, eta horietako bat da herrikoa. Xanistebanetako lasterketak sona du 23 urtez azpiko eta Elite Mailako txirrindularien artean, eta palmaresean izen handiak ageri dira, irabazle gehienek profesional izatea lortu baitute. «Profesionaletara jauzia emateko, esan daiteke lasterketa hau irabaztea derrigorrezkoa dela. Harro gaude horrelako proba polit bat aurrera ateratzegatik», esan du Astarlozak.

Babesle nagusi den Oiartzungo Udaleri, laguntza ematen duten komertzioei eta lasterketaren egunean lanean arituko diren boluntarioei eskerrak eman dizkie OTXEko kideak. ■

Mirari Txurio
ILEAPAINDEGIA
Ongi pasa xanistebanak!

Tel.: 943 49 20 52

Rafael Pikabea, 27
20180 OIARTZUN



Manuel Lekuona etorbidea,
2, behea.
20180 OIARTZUN

@arkupehortzclinika

Ongi pasa Jaiak!

arkupe
hortz klinika

maitane zubizarreta

periodontzia
implantologia
kirurgia
protesia
ortodontzia
ortopantografia

Kontzejupe plaza, 7 • 20180 Oiartzun • 943 57 39 23



Abuztuaren 4an egingo dute bazkari begano feminista. Oiarzungo Udala

LEIRE PERLINES APALATEGI

Oiarzungo Feministen Asanbladak egitarau feminista ondu du, beste behin, xanistebanetarako. Sare soziale-tan jakinarazi dutenez, «xanistebanak kolorez margotu eta jaiak askatasunez gozatzeko egitarau feminista» osatu dute aurtengorako.

Jakinarazi dutenez, txosnagunean egongo da asanblada, eta «denentzat espazio eroso izan dadin» lanean ari-tu direla nabarmendu dute.

Abuztuaren 2an (larunbata da) emango diote egitarau moreari hasiera urtero egiten duten agerraldi feminis-tarekin, eta, azken ekintza abuztuaren 4an (astelehena) izango dute. Zehazki, egitarauari ginga jartzeaz Maruxak ar-duratuko da txosnagunean egingo du-ten folklore trabesti ikuskizunarekin.

Herritar ugari biltzen dituen egitas-moetako bat izaten da bazkari bega-no feminista; abuztuaren 4an egingo dute aurtan Zimitiyoko txosnan, eta, antolatzaileek jakinarazi dute menu bereziren bat behar duenak edota alergiaren bat duenak asanbladako kideei abisatu behar diela. Honakoa da asanbladaren Instagram helbidea: @oiartzungofeministenasanblada

Bazkariko sarrerak Kastro tabernan daude salgai; tiket arruntak hamabost euro balio ditu, eta haur eta langabee-nak, aldiz, hamabi euro.

Bestalde, asanblada feministakoek adierazi dute ekintza guztiak irisga-riarik direla, bai eta esertzeko aulkiak egongo direla ere.

Eraso matxisten kontrako protokoloa

Emakume bati eraso egin diotenean edota arriskuan dagoela uste badu inork, egoera hori nola kudeatu jaki-teko eraso matxisten kontrako proto-koloa sortu du asanbladak [Hurrengo orriko QRa eskaneatuta irakur daiteke berau].

Erasorik balego, lehentasuna duen kontua izanik, herritarrak egiten ari diren hori utzi eta emakumea lagun-tzeari eman diote garrantzia, bai eta hura bakarrik ez uzteari ere. «Saiatu bere konfiantzazko norbait bilatzen.

Xanistebanak moreak izango dira

GARMENDIA ITURTUXOKO S.L.
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA
ELORRONDO 1, BEHEA OIARTZUN
943 49 44 36 - 639 37 39 98
WWW.GARMENDIAITURTUXOKO.EUS
giturtuxoko@gmail.com

MAPFRE OIARTZUN
Ongi pasa xanistebanetan!
ITZIAR USABIAGA
Tel.: 943 49 44 14 | 669 56 78 58
iusabia@mapfre.com
Mendiburu, 4 behea OIARTZUN



Tabakoa, loteria eta opariak
Estankua 1898
Gora xanistebanak!
Tel.: 943 49 16 11 - Doneztebe plaza, 11. OIARTZUN

KIRIKOKETA
gozau dakizun bezala!
Aialde, 1. OIartzun
943 26 07 78

EGITARAU FEMINISTA

ABUZZTUAK 2, LARUNBATA

- **18:30.** Agerraldi feminista herriko plazan.

ABUZZTUAK 4, ASTELEHENA

- **14:30.** Bazkari begano feminista Zimitiyoko txosnan.
- **17:00.** Bingo musikatua Zimitiyoko txosnan.
- **18:00.** Panteren jaitiera ronro-neatzailea Zimitiyotik txosnagunera.
- **19:00.** Maruxak folklore trabesti showa txosnagunean.

Ez baduzu inor aurkitzen, gelditu berarekin». Jarraitu beharreko hurrengo pausu bezala eraso jasan duenak laguntzarik behar ote duen galdetzea zerrendatu dute. Halaber, nabarmendu dute eraso jasan duen emakumearen erabakiak eta denborak errespetatu behar direla. Hots, enpatia eta laguntza eskaintzea ere nabarmendu dute

berriki argitaratu duten protokoloan.

Azkenik, erasotzailea bertan bada go harekin hitz egin behar dela gehitu dute. «Harekin hitz egin, argi utzi eremu horretan ez dela jarrera sexistarik onartzen eta taldean gunetik kanporatu».

Protokoloan, bestalde, zerrendatu dute erasotuak laguntza medikua behar badu edota salaketa jarri nahi badu zer egin behar den.

Era berean, zenbait telefono ere jarri dituzte eskura dituzte: tratatu txarren biktima diren emakumeei laguntzeko telefonoa (24 orduz hainbat hizkuntzatant): 900 84 01 11. Gizarte larrialdietako koordinazio zerbitzua: 943 22 44 11 (22:00-08:00 112 zenbakiaren bidez). Oiarzungo Gizarte Zerbitzuak: 943 49 05 52. SOS deiak: 112. Oiarzungo Udal-tzaingoa: 943 49 33 11.

Horretaz guztiaz gain, inork laguntzarik behar izanez gero, asanblada feministaren txosnara edota Fermiñeneko arreta eta informazio gunera bertaratzeko deia luzatu dute. ■

Fermiñenen egongo da arreta gunea

Oiarzungo Feministen Asanbladak «jaiak askatasunez gozatzeko» egitaraua osatu du, baina, lekuz kanpoko gertakariaren bat edota erasoren bat egoten bada eta, ondorioz, pertsonaren batek laguntza behar badu, asanbladako kideren batengana jotzeko aukera izango du biktimak. Horretarako, asanbladaren txosnara hurbildu edota Fermiñeneko arreta eta informazio gunera joan beharko da. Gune hori Ongizatearen Etxean dago, eta arratsaldeko seietatik gaueko bederatzieta eta gaueko hamaiketatik goizeko seietara egongo da irekita. Era berean, jakinarazi dute abuztuaren 3an eta 4an eguerdiko hamabietatik eguerdiko ordu bi eta erdiak arte irekita egongo dela gunea.



Eraso matxisten kontrako protokoloa, hemen eskuragarri
oarsoaldea.hitza.eus



**Lorez lore,
festa eta kolore!**

www.pachecoizetaloreak.com
943 49 18 68
MAMUT merkatalgunea
Oiarzun



MARITXU
arrandegia

Ongi pasa
xanistebanak!

Donibane kalea 8 - Oiarzun - 943 49 06 43



Ongi pasa xanistebanak!

Amixelena
bitxidenda

Mamut merkatalgunea - Oiarzun - 943 49 31 84



URKABE
higiezin agentzia

ALOKAIRUAK
ETXEBIZITZAK
LOKALAK
SALMENTAK

Aialde, 3 - OIARTZUN - Tel.: 747 426 211 - urkabeinmo@urkabe.eus



**Gora
Xanistebanak!**

Plazan bertan

Doneztebe plaza 13, Oiarzun
Asteartetan itxita



itturri
Oíartzungo Merkatarien Elkartea

**Heldu
Herrira!**

Dendaria bazara batu
zaitez elkartera:
itturri@itturri.eus



@itturrioiartzun



**EGITARAU
OSOA
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda



Alaine Aranburu

AUZOAK, SOKATIK TIRAKA MADALENSORON

ABUZTUAREN 3AN, 16:00ETAN. Auzoen arteko sokatira txapelketa xanistebanetako ekidin ezinezko hitzordua da. Aurtengoa 37. ekitaldia izango da. 16:00etan hasiko dira nor baino nor auzoetako tiralariak. Norentzat izango ote da aurtengo txapela? Joan, eta ikusi.



Alaine Aranburu

SAGARDOA FESTEN ERDIGUNEAN

ABUZTUAREN 4AN, 11:50AN. Inaxio Ugarteren omenezko 24. Sagardo Lehiaketa jasoko du festen bigarren eguneko goizak Done Eztebe plazan. Herriko sagardoa banatuko dute bertan, eta herritarrek, sagarraren zukua dastatzeaz gain, epaile izateko aukera izango dute edalontzia erosten dutenek puntuak emateko eskubidea izango dutelako. Tragoska edan, eta aukeratu irabazlea!



Ane Mendizabal

BAZKARIAK, BATZEKO AITZAKIA

FESTETAN ZEHAR. Jaietako herri bazkariak elkartzeko eta batzeko aitzakia dira. Lagun eta ezagunekin, edo ez hain hurbilekoekin harremana indartzekoa jaten den bitartean. Abuztuaren 4an erretirtuen (irudia iazkoa da) eta mugimendu feministaren bazkariak izango dira; 5ean, berriz, gazteena; eta 6an ez hain gazteen arkume jatearen txanda iritsiko da.

PILOTA EGOKITUARI TARTEA KONTZEJUPEAN

ABUZTUAREN 4AN, 16:00ETAN. Xanistebanen harira hainbat dira martxan izan diren pilota txapelketak, denak herri izaerakoak. Jaiak bitartean jokatuiko dituzte finalak. Pilota egokituak ere izango du tarte, ordea: Mindara elkartearen eskutik, pilota egokituak erakustaldia egingo dute Kontzejupean abuztuaren 4ko arratsaldean.



Ane Mendizabal